


Itzulpenak eta Lankidetzak



Zer diren Cloze testak; nola erabiltzen ditudan *

Kenneth R. Cripwell

Azken urte hauetan gero eta interes haundiagoa sortu du hizkuntza arrotzen irakaskuntzan Cloze testen¹ erabilpenak. «Irakurketa, ingelesa bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza denean» gaiaren inguruan ospatu zen mintegi bat 1974ean Singapore-ko RELC-en (Regional English Language Center). Hori zela eta, Kontseilu Britainiarreko Keith Jones-ek hau idatzi zuen *The Times Educational Supplement*-en:

Cloze prozedurek hizkuntzan egindako aurrerapenen ebaluazio eta mailaketerako oso bitarteko baliotsuak direla erakutsi dute, eta mintegian beste edozein gaik baino jakinmin biziagoa sortu dute.

1. ZER DIRA CLOZE TESTAK?

Cloze testak *Gestalt* psikologian oinarrituak daude, eta pertsonak behin eskema baten egituraz jabetu ondoren, eskema osatzeko duen ahalmenaz baliatzen dira. Esate baterako, arbelean gizon baten aurpegia belarri bat eta bekain bat gabe marrazten baduzu, ikasleak marrazkia osatzeko gai izango di-

ra, zer den antzeman badiote behinik behin. Osatze honi «Clozedura» deitzen zaio; eta, marrazkia osatzera-koan, ikasleek Cloze prozedurak jarraitzen dituzte.



Irakurmenari buruzko Cloze testak ingelesa lehenengo hizkuntza bezala lantzeko hasi ziren erabiltzen, eta Wilson Taylor-ek garatu zituen orain dela 20 urte baino gehiago. Oraintsuago, Cloze testak beste ama-hizkuntza batzutan ere erabili izan dira irakurmena neurtzeko; adibidez, vietnamieran eta thaieran. Aldi berean, gero eta nabarmenagoa da Cloze testak erabiltzea interesgarria dela ingelesa bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza bezala irakasteko orduan.

* Ingelesezt «What is a Cloze Test; how do I use it?» izenez, Modern Language Teacher aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulua eta berrargitaratua. Baita ere honako liburu honetan: Helen Moorwood (1978), «Selections From MET -Modern English Teacher», Essex, Longman.

1. Cloze test hauek «burutze-proba» edo «burutze ariketa» bezala dira ezagunak gure artean, EGA argiaren inguruan dabilen irakasle-ikasleen artean batipat.

Euskaraz eman da lehen ere hauen berri. Ikusi, esate baterako, «Hizkuntzen irakaskuntza. Gramatika-ariketak» (Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak, 2, 128-129. orr.) eta «Euskararen Gaitasun Agiria. Programa» (Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak, 7, 91-93. orr.).

Pamela Riley-k honela definitzen du Cloze prozedura:

Cloze prozedura prosa-zati bate-tik zenbait hitz ezabatu, eta irakurleak hutsuneak betetz ematen duen erantzuna ebaluatzen metodo bat da. Irakurleak emandako erantzunei esker ebalua daitezke bai irakurmenarena eta baita irakurritakoaren ulermena ere. Hitzak ezabatzeko, Cloze

standarra izeneko bidea aukera daiteke, araurik gabe eta mekanikoki ondoz ondoko n-garren hitz guztiak ezabatuz, edo zenbait irizpide (hitz-klaseak, erredundantzia edo aurrikusgarritasuna) kontuan hartzen dituen bidea.

Hona hemen Cloze testak zer diren adierazteko bi adibide²:

LEHENENGO PASARTEA

You may have heard _____ (1)
make-believe story of Dr. Doolittle.
He learned how to _____ (2)
animal talk. But have _____ (3)
heard the true story _____ (4)
Dr. John Alexander Lilly? _____ (5)
is really learning to _____ (6)
with dolphins! Dolphins, you _____ (7)
are beautiful creatures. They _____ (8)
in most oceans of _____ (9)
world. They look like _____ (10)
but they are warm-blooded _____ (11)
like human beings. They _____ (12)
lots of sharp teeth. _____ (13)
they are kind. Many _____ (14)
dolphins help tired swimmers. _____ (15)
will push a man _____ (16)
ashore. Dolphins are larger _____ (17)
people. They can grow _____ (18)
be eight or nine _____ (19)
long. They have larger _____ (20)
than people, too. Dolphins _____ (21)
be at least as _____ (22)
as people, thought Dr _____ (23)
Why not learn to _____ (24)
with them? Perhaps they _____ (25)
tell us many things _____ (26)
the ocean we need _____ (27)
know. And they are _____ (28)
friendly. They might even _____ (29)
us how to live _____ (30)
in peace. The doctor _____ (31)
to work. On an _____ (32)

BIGARREN PASARTEA

A scheme for the _____ (1)
breakdown of individual societies _____ (2)
functional sub-systems has been _____ (3)
by Parsons. Smelser and _____ (4)
This basically consists in _____ (5)
categorisations of aspects of _____ (6)
interaction in terms of _____ (7)
four functional exigencies with _____ (8)
it is postulated, all _____ (9)
social systems must cope. _____ (10)
propose to utilise the _____ (11)
of functionally specific sub-systems _____ (12)
the idea that one _____ (13)
the four will tend _____ (14)
manifest primacy and greater _____ (15)
relevance at particular times. _____ (16)
are here concerned primarily _____ (17)
implication of the phase _____ (18)
for so-called twentieth centuries. _____ (19)
evidence of primacy or _____ (20)
or relevance is of _____ (21)
rather sketchy and inconclusive; _____ (22)
in respect of actual _____ (23)
as opposed to the _____ (24)
social-scientific, preoccupations. In _____ (25)
emphasising _____ (26)
link between or interests _____ (26)
attention in the writings _____ (27)
social scientists or philosophers _____ (28)
the paramountcy of functional _____ (29)
in the societies about _____ (30)
they wrote, we believe _____ (31)
indications of any such _____ (32)

2. Adibideetatik lehenengoa haur-literaturako zati bat da (6-8 urte bitartekoa), eta bigarrena Unibertsitate-mailako Soziologiako testu-liburu batetik hartua dago.

Guk dauden daudenean utzi ditugu, batetik, itzulpena ez baina moldaketa-lana eskatzen dutelako, eta, bestetik, ondorengo portzentaiak testu ingelesean oinarrituta daudelako. Euskarazko adibiderik nahi duenak jo beza lehen oharrean aipatutako bibliografiara edo ZUTABE ale honen «Esperientziak» saileko «Cloze testak eta irakurmena» izeneko artikulura.

in the Caribbean Sea	(33)	among the former at	(33)
Lilly built a dolphin-house.	(34)	partially reflect evidence of	(34)
the house were many	(35)	paramouncy in the latter	(35)
Some were deep. Some	(36)	of course, for the	(36)
shallow. Besides some of	(37)	mentioned possibility of professional	
thanks were dry spaces	(38)	scientific	(37)
the people who worked	(39)	sustaining an academic style	(38)
the dolphins. But some	(40)	the terminal point of	(39)
went right into the	(41)	'real' relevance. This quite	(40)
with these powerful creatures.	(42)	postulate, which in itself	(41)
of these workers was	(43)	no assumptions about cause	(42)
Margaret. She lived in	(44)	effect but only about	(43)
room for ten weeks	(45)	probably applies more accurately	(44)
a dolphin named Peter.	(46)	the past than to	(45)
was Peter's teacher. At	(47)	present - when the sheer	(46)
he could make no	(48)	of social research makes	(47)
sounds. He could just	(49)	identification of primacy of	(48)
clicks, whistles and rasping	(50)	with functional paramouncy more	(49)

Erantzunak

● Lehenengo pasartea

(1) the (2) understand (3) you (4) of (5) He (6) talk (7) know (8) live (9) the (10) fish (11) mammals (12) have (13) but (14) times (15) They (16) safely (17) than (18) to (19) feet (20) brains (21) could (22) smart (23) Lilly (24) talk (25) would (26) about (27) to (28) so (29) tell (30) together (31) set (32) island (33) Dr (34) In (35) tanks (36) were (37) the (38) for (39) with (40) workers (41) tanks (42) One (43) named (44) a (45) with (46) Margaret (47) first (48) human (49) make (50) noises

● Bigarren pasartea

(1) analytical (2) into (3) evolved (4) others (5) the (6) social (7) the (8) which (9) viable (10) We (11) notion (12) including (13) of (14) to (15) situational (16) We (17) with (18) model (19) The (20) emphasis (21) course (22) especially (23) societal (24) merely (25) the (26) or (27) of (28) and (29) emphasis (30) which (31) that (32) focus (33) least (34) corresponding (35) allowing (36) previously (37) autonomy (38) beyond (39) its (40) basic (41) makes (42) and (43) correlation (44) to (45) the (46) quantity (47) the (48) concern (49) difficult

Agian, nola erabili ikusteko modurik onena norbera egiten saiatzea daiteke. Erantzun egokiak zenbatu eta bikoiztuz aurkituko duzu dagokizun por-

tzentaia. Ez ari erantzunak interpretatzen.

Bakoitzaren puntuazioa «egoki» ala «desegoki» izango da soilik.

2. ZER ADIERAZTEN DUTE EMAITZEK?

Ondorengo taulak emaitzen esanahia adierazten dizu gutxi gorabehera:

Jarriotasun maila: %50 - %100
Argibide maila: %38 - %50
Frustazio maila: % - %38

Pixka bat argituz, emaitza %38tik beherakoa baduzu, ez zara testuaren eskemaz jabetzeko gauza, nahiz eta irakurzaikoa zenbait zati ederki deszifratu ahal izan. Puntuazioa %38tik %50era bitartekoa bada, zenbait argibideren laguntzaz irakurri duzuna ulertu ahal izango duzu. Puntuazioa %50etik gorakoa bada, berriz, erraz uler dezakezu.

Nola dakigu, ordea, portzentaia hauek irakurmen mailaren adierazgarri direla? Terminoak Betts-ek 1946an ezarri zituen, berak egindako ikerketetan aukera anitzeko ulermen-galderez baliatuz; eta geroztik testua ulertzen denentz neurtzeko ontzat ematen diren arauetariko bat izatera heldu da. Bormuth-en ikerketek (1967) azaldu zuten, Cloze testek lortutako emaitzak eta aukera anitzeko ulermen-galderen bidez ikertutakoak alderatuz gero, korrelazio handia ikusten da bien artean. Hemen goian adierazi diren irakurmen mailak Betts-en eskalaren arabera dira.

Antzeko eskala bat ezarri zuen W.H. Alexander-ek 1968an, horretarako Lorge-Thorndike adimen-testean eta Gates-MacGinitie irakurketa-testean oinarriturik. Berari jarraituz, irakurmenaren mailak hauek dira: frustaziozkoa %0 - %47, argibidezkoa %47 - %61, jarriotasunezkoa %61 - %100.

Emaitzak interpretatzea beti lan zaila den arren, nirekiko, Bormuth-en mailaketa zen horretarako gidaririk egokiena. Bestalde, berriki egin den ikerketa batek erakutsi du irakurmen maila berak aplikatu daitezkeela ingelesez hizkuntza arrotza edo bigarrena denean.

Irakurritako bi pasarteetatik lehenengoa 6-8 urteko irakurmen-adinari dagokio; eta bigarrena, berriz, J.P. Nettl eta Roland Robertson-en «*International System and Modernization of Societies*» liburuko 21. orritik hartu da —obra hau ikasle unibertsitariari zuzenduriko soziologiako testu-liburua da—. Edukiz eta hizkeraz dituzten ezberdintasunek esplikatu dezakete kasu bateko eta besteko emaitzen artean dagoen aldea.

Beharrezkoa da 200 edo 250 bat hitzetako irakurzaikoa hautatzea, bai egituraren eta bai lexikoaren aldetik hitz klase desberdinen artean oreka egokia lortzeko.

Ikerketek erakutsi dute jatorrizko ingelesdunak berak ere larri samar ibiltzen direla hutsunea bost hitzez behinekoa denean. Aldiz, erraza egiten zaie hamabi hitzez behinekoa denean. Ingelesa bigarren hizkuntza edo hizkuntza arrotza duten irakurleentzat, berriz, ikus da zortzi edo hamar hitzez behinekoak direla egokiak.

Cloze testak hobeagotzeko, pasarteen bat dagoen dagoenean sar daiteke orientazio gisa. Honelako pasarteak testuko beste hiru edo lau esaldi izango lirateke, eta irakurleari pasartea bere testuinguruan, hau da, normalean irakurri ohi den bezelatsu ikusten lagunduko liokete.

3. ERANTZUNEN INTERPRETAZIOA

Erantzunen interpretazioaz eman diren iritzirik askotakoak izan dira. Izan ere, arazoizkoa bait dirudi, adibidez, «*katua alfonbraren ginean eseri zen*» esaldian *alfonbra* ordez *lur*, *zolu* edo horrelakoak onartzea. Emaitza orokorrean alde txikia dago erantzun «interpretatuaren» eta «egokiaren» artean; estatistika aldetik, behintzat. Eta nahiago dut erantzun egokiak besterik ez onartzea, emaitzaren interpretazioan —irakurmenaren aldetik— eragirik izan dezakeen subjektibitate-elementurik gerta ez dadin.

Sarritan galdetu izan didate ea ezabatuko diren hitzak hautatzerakoan gorago aipatutako era estu-estu aplikatu behar ote den. Nire ustez, hautaketa horretan konpontetak egitea, esaterako, guztiak aditzak izatea, testaren balio estatistikokoarekiko interferentzia litzateke. Eta ez hori bakarrik. Ikerketek erakutsi dutenez, testu beretik hamar test eratuta ere, hamar hitzez bat ezabatuz adibidez (test bakoitza hitz-lagin zeharo ezberdinez osatua egonik, noski), hamar testen arteko barne-korrelazioa oso altua da. Nire iritziz, honek n-garren hitzaren metodoa estu aplikatzearen alde hitzegiten digu.

Jakina, «Smith» edo «Chicago» moduko hitzek ez dira aukeratu behar, horrelakoak ezin bait dira testuaren gainerako esaldietatik asmatu.

4. ZERGATIK NAHIAGO IZAN CLOZE AUKERA ANITZEKO GALDERAK BAINO?

Aukera anitzeko ulermen-galderak baino nahiago dut Cloze testa; batez ere, horiek bezain baliotsua izanik, eratzeko eta ikasgelan erabiltzeko askoz errazagoa delako.

Zenbait funtsezko eragozpen ere aurkitzen diet aukera anitzeko ulermen-galderei. Lehenik, irakurgai batean bi pertsonak gutxitan aukeratuko dituzte puntu berak galderak egiteko; honek berehalatik sartzen du subjektibotasun-elementu bat. Bigarrenik, testuko edozein punturi buruz egindako galderetan ere nekez jarriko dute indar bera. Adibidez, testa «*Katua alfonbraren gainean eseri zen*» baldin bada, batek «non eseri zen katua?» galdetuko du, eta besteak, aldiz, «katuek alfonbraren gainean eseri behar luketela us-te al duzu?» (berriro ere, subjektibitatearen araberrako bi galdera mota desberdin). Hirugarrenik, aukera anitzeko sail batean distraktoreak eratzerakoan ere egon daiteke subjektibitate-elementurik. Talde-lana, testak eta ebaluazioak behin eta berriro eginez bakarrik lor daiteke aukera anitzeko ulermen-galdera «onak» moldatzea.

Irakasleek ez dute maiz izaten ikasgelan erabiliko dituzten galdera-multzoak osatzeko behar hainbat denbora eta erraztasun. Cloze testak, ostera, moldaerrazak dira haien aldean.

Bada, nire ustez, hemen aipatzea komeni den beste puntu bat ere. Ulermen-galderek irakurlea entzumenaren arabera gidatzeko joera dute; irakurgaiari ikuspuntu jakin batetik begiratzten diote. Hala, ikaslearen irakurketa hesitu egiten dute. Denok ikusi izan dugu zenbatetan galderetara jotzen duen ikasleak pasartea irakurri baino lehen. Zergatik gertatzen da hau? Galderek ikasleari testuan zer bilatu behar lukeen esaten diotelako, noski. Cloze testetan hori ezinezkoa da. Ikasleak bere kabuz jardun behar du. Bestalde, esan ere esan da Cloze testak hutsegite-testak baino gehiago test sortaileak direla, gainerako test gehienak ez bezala.

Hirugarren puntua hauxe da: Cloze testak erabilzen dituztenean, ikasleek benetan pasartea behin baino gehiagotan irakurtzen dute, eskatu ohi zaien moduan. Ulermen-galderekin askotan ez da gauza bera gertatzen, ikasleek testuari eta honen berrirakurketari ez bait diote axaleko arreta besterik jartzten. Eta hori gertatzen da ikasleek askotan galderetatik testura atzerantz joateko joera dutelako, alderantzizkoa baino gehiago.

Laugarren faktore bat da irakurgai osoko dekurtsua aztertzeraz bultzatzen direla irakurleak, itemak (lexikoa) nahiz esaldik (egitura) banaka aztertzeraz baino areago. Hori, nire ustetan, puntu garrantzitsua da, azpimarratzekoa, batipat erdi eta goi-mailetako ikasleentzat.

Azkenik, nire iritziz, ikasleari gaiaz orokorki jabetzen irakasten dio, irakurgai osoaren esanahian kontzentratzeraz behartzen bait du.

5. CLOZE TESTEN ERABILERAK

Testu jakin baten irakurgarritasuna neurtzeko.

Lehen aipatu bezala, Cloze testak irakurlego jakin batentzat testu jakin batek duen irakurgarritasun maila neurtzeko erabili ziren.

Izugarrizko garrantzia du informazio honek ingelesa bigarren edo hizkuntza arrotza bezala irakasten dutenentzat. Ematen zaien testua erraz irakur badezakete ikasleek, garbi dago irakasteko estrategiak nolakoa izan behar duen: ez dago testua azaldu beharrik, eta berehala has daiteke testua lanerako erabiltzen. Bestalde, ikasleak ulertzeko argibideen beharrean daudela ikusiz gero, nahitaezkoa izango da testua uler dezaten lantzea. Ikasleak frustrazio mailan badaude, berriz, hobe da testu hori alde batera uztea; izan ere, hizkuntza zailegia egiten bait zaie, edo testuingurua arrotzegia.

Ezagupenak ebaluatzeko

Cloze testa ezagupenak ebaluatzeko ere erabil daiteke. Behin batean irakurgai luze bat eman nien nere ikasleei etxean prestatzeko. Nik banekien ulertzeko gauza zirela. Ondoren, lan hori testatu egin nuen, irakurgaitik 200en bat hitzeko hiru edo lau zati hartu eta Cloze prozeduraz tratatuz. Honelako kasutan bostnakako hutsuneak moldatzea gomendatuko nuke. Emaizak oso ederki isladatzen du zenbateraino prestatu duen ikasle bakoitzak bere lana.

Irakasteko

Hirugarrenik, irakasteko erabili izan dut Cloze testa. Ikasleek beren testak bukatu eta puntuatu ondoren, beti sortzen da, emaitzen interpretazioa dela eta, ezinbesteko eztabaida.

«Zergatik ezin dut, bada, 'zirri' idatzi 'alfonbra' ordezt? Azkenean biek gauza bera esan nahi dute».

Ongi etorriko da ikasleek beren erantzunetikiko duten atxekimendu hau momentuko eztabaidarako. Askotan –oker– herabe eta isiltzat jo izan diren ikasle norbergiarrei, hitzjariora eta eztabaidarako gogoia piztu ohi zaie beren emaitzez hitzegiteko orduan. Aukera ona izan daiteke ahozko hizkuntza lantzeko.

Entzumena garatzeko

Butatzeko, esan dezadan badagoela Cloze testen bidez neurtutako irakurmen eta entzumenaren artean korrelazio altua dela adierazten duen zenbait ikerketa.

Beraz, oro har, Cloze-k irakasleari posibilitate-multzo berri eta zabal bat eskaintzen diola iruditzen zait. Batez ere, Cloze testa edozein irakasleak zailtasun haundirik gabe osatu eta puntua dezakeelako. Izan ere, ingelesa hizkuntzaren irakasle orok *gaur bertan* erabil dezakeen tresna bait da.

Itzultzailea: Koro Zumalabe

QUE SON Y COMO UTILIZO LOS CLOZE TESTS

Los primeros Cloze tests se construyeron con objeto de medir la habilidad lectora del sujeto en su lengua materna; sin embargo, recientemente éstos han sido objeto de creciente interés en el terreno del estudio de una segunda lengua.

El autor se propone en este artículo definir el Cloze test –cuyo origen se remonta a la Psicolo-

gía de la Gestalt–, analizar la problemática de su construcción e interpretación de resultados, manifestar sus ventajas sobre las preguntas de elección múltiple y dar a conocer las posibilidades de su utilización –valoración de conocimientos, enseñanza y desarrollo de la comprensión auditiva–.

WHAT ARE THE CLOZE TESTS? HOW DO I USE THEM?

The first cloze tests were elaborated in order to measure the reading skill of the subject in his mother language; however, recently, people have begun to look at them as important in the field of the study of a second language.

The author's aim is to define the cloze tests, whose origin could be found in the Psychology of

Gestalt, and to analyse the problems of their elaboration and the interpretation of the results involved. The author wants to show their advantage over the multiple choice questions and to show the possibilities of using them in order to evaluate the student's knowledge and to teach and develop the listening comprehension.

LES TESTS CLOZE ET COMMENT LES UTILISER

Les premiers tests cloze furent établis dans le but de mesurer la capacité lectrice du sujet dans sa langue maternelle; cependant ces derniers temps leur intérêt dans le champ de l'étude d'une deuxième langue s'est accru.

L'auteur envisage dans cet article de définir le test cloze dont l'origine remonte à la psychologie

de la Gestalt, ainsi que d'analyser la problématique de sa construction et l'interprétation des résultats, montrer d'autre part les avantages sur les questions à choix multiple et faire connaître les possibilités d'utilisation, à savoir, évaluation des connaissances, enseignement et développement de la compréhension auditive.

MATERIAL FUNZIONALAK ETA IKASGELAKO IRAKASLEA: ZENBAIT OINARRIZKO ARAZO

Azken urteotan etengabe landu da, eta era askotan landu ere, hizkuntz irakaskuntzako hurbilpen funtzionala. Hain iraunkorra den gai hau ez da teoriaren alorrean gelditu, ez da eztabaida akademiko hutsa izan; ikasgeletan ere gauzatu nahi izan da.

Hauxe duzu gure aldizkarian gai honi hainbat artikulu eskaintzeko arrazoia. Artikulu hauek «Functional Materials and the Classroom Teacher. Some Background Issues (material funtzionalak eta ikasgelako irakaslea, zenbait oinarrizko arazo) lanetatik hartu ditugu. Artikulu hauek «Modern English Publications» —en argitara dira. «Silabuserako hurbilpena: komunikatiboa, funtzionala ala nozionala?» du lehenengoak izenburu; ondoren, beste hauek emango ditugu: «Programen antolamendua: teoriatik praktikara igarotzeko arazo batzu», K. Morrow-ek idatzia; «Programa funtzionalen aplikazioak» K. Johnson-ena eta «Zailtasunak zailtasun, beti aurrera», D. Byrne-k egindakoa.

Alor honetan argi apurtxo bat bederen egitea da gure asmoa. Hizkuntz irakaskuntzan hainbesteko garrantzia duten zenbait galdera sortu, eta erantzuna emango diegulaokoa gaude.